

Euskal toponimo zenbaiten ingurumarian

Acerca de varios topónimos vascos

Autour de quelques toponymes basques

Basque toponyms in various areas

ERDOZIA MAULEON, Jose Luis

Euskal Filologian doktorea eta Geografia eta Historian lizentziaduna

Noiz jaso: 2017-09-29

Noiz onartua: 2018-04-13

Euskera. 2017, 62, 2. 249-288. Bilbo
ISSN 0210-1564

Artikulu honetan, bere hasieran euskal toponimiari buruzko zenbait burutazio ager-tzeaz gain, autoreak, egun oraindik ia azalpenik gabe diren toponimo nagusi batzuen eta ikuspegi ezberdina jasotzen duen beste batzuen inguruan bere iritzia eta proposamena ematen du. Azken hauen artean, Nafarroako Burunda eta Burgoseko Atapuerca toponimo nagusiak izan ditu hizpide autoreak; eta, besteen artean, berriz, *ara-* osagaia duten hidronimo eta oronimoak bereziki (*Arakil, Aralar, Araña, Arbizu, Arruazu, Araia, Aragon, Arga, Arazuri, Araotz...*) eta oso zabalduak diren *sare, sarobe/sarabe, saroi* toponimo osagaiak.

Gako-hitzak: Toponimia, transkribapenak, Atapuerka, *Ara-* aurrizkidun toponimoak, Burunda, sare.

En el presente artículo, en su inicio el autor nos ofrece algunas consideraciones sobre la toponimia vasca y, posteriormente, nos da su opinión y propuesta acerca de algunos topónimos que hasta la fecha no han sido objeto prácticamente de comentario alguno por parte de los toponimistas, así como una visión diferente con respecto a otros topónimos mayores. Entre estos últimos, los referidos al navarro Burunda y al burgalés Atapuerca; y entre los anteriores, especialmente los hidrónimos y orónimos que llevan el componente inicial *ara-* (*Arakil, Aralar, Araña, Arbizu, Arruazu, Araia, Aragon, Arga, Arazuri, Araotz...*), así como los tan extendidos *sare, sarobe/sarabe, saroi*.

Palabras clave: Toponimia, transcripciones, Atapuerka, topónimos con el prefijo *Ara-*, Burunda, sel.

Au début de cet article, l'auteur nous présente quelques réflexions sur la toponymie basque, puis nous donne son opinion et ses propositions à propos de certains toponymes qui n'ont jusqu'à ce jour pratiquement pas été étudiés par les toponymistes. Il nous donne également un point de vue différent sur d'autres toponymes majeurs, en particulier les toponymes majeurs de la vallée navarroise de Burunda et de Atapuerca dans la région de Burgos, mais aussi les hydronymes et les oronymes qui débutent par *ara-* (*Arakil, Aralar, Araña, Arbizu, Arruazu, Araia, Aragon, Arga, Arazuri, Araotz...*), ainsi que *sare, sarobe/sarabe, saroi* qui sont très courants.

Mots-clés: Toponymie, transcriptions, Atapuerka, toponymes commençant par *Ara-*, Burunda, sare.

At the beginning of this article the author makes various observations on Basque toponymy and goes on to give his opinion and proposals on several toponyms that to this day are virtually unexplained and offer a different take on some other major toponyms. Amongst the latter, Burunda in Navarre and Atapuerca in Burgos; and amongst the former, in par-

ticular, toponyms that refer to bodies of water or mountains and have the component ara- (*Arakil, Aralar, Araña, Arbizu, Arruazu, Araia, Aragon, Arga, Arazuri, Araotz...*) and the widespread toponymic components *sare, sarobe/sarabe, saroi*.

Keywords: toponymy, transcriptions, Atapuerca, toponyms prefixed with *Ara-*, *Burunda*, *sare*.

1. Sarrera

Artikulu hau idazterakoan izan dudan asmo bakarra izan da zenbait toponimoren gainean eraikitako ikuspegiei batzuetan, eta ia inolako azalpenik gabe direnei beste batzuetan, beste interpretazio bat edo ikuspegi berria ematea. Toponimo horien gainean nire ikuspuntua emateko helburua baino ez du, beraz, hemen jasotakoak, Patxi Galeren ondorengo testuan esaten denaren ildotik jarraituz:

Ikerketen helburua: Askotan esan ohi da toponimia ikerketak ez direla sekula santan amaitzen. Eta egia da. Egitasmo batean ordu asko sartu dituen ikertzaileak, bere lanaren emaitzak albait modurik biribilenean aurkeztu nahi izaten ditu. Bere lana amaitutzat emateko gogoia izaten du. Gainera pentsatuko du ikertu duen eremua, jadanik ez dela berriro ikertu behar, gaia ahiturik dagoela, alegia. Baina gauzak ez dira hain sinpleak. Ikerketa bat amaitzen denean, ondoren etorriko diren beste ikerketa batzuen oinarri huts izatera pasatzen da. Toponimiaren munduan –eta ikerbide zientifiko orokorrean ere halaxe da–, amaituriko ikerketa bat beste ikerketa batzuetarako informazio iturri bat besterik ez da izango aurrerantzean. Badaude iker-tzaileak, ordea, beren herriko toponimia aztertu nahi duten belaunaldi berriei oztopoak jartzen dizkietenak. Zertarako alferrik lan egin? Nik eginga dut ikerketa hori! Hobe duzue dirua beste edozertan gastatzea! Baina ikergaiak ez dira ikertzaileen jabetza, noski, eta kontuan izan behar dugu aurrerapen zientifikoa beti oinarritzen dela aurrekoek egindako aurkikuntza eta urratsetan. Hortaz, sobran daude deskribatu ditugun jarrera horiek. Kontrara, gure aurrekoek egindako lana ezagutu beharra dago, alde batetik, eta, bestetik, ikerketa berriak bultzatu behar ditugu aldi berean. (Galé, 2007, 165)

Hala ere, toponimoen gaineko nire ikuspuntua ez da izanen, besterik gabe, aipatu toponimo horiek etxeko epelean hartu eta haien balizko jatorria edo etimologiari buruzko interpretazioa ematea. Alacanteko Unibertsitateko Román del Cerro irakasleak markatzen duen ildo jarraitu nahi izan dut, ahal izan dudan gutzietan, hemendik aurrerakoak esateko:

De ahí, que forme parte esencial de la metodología toponímica la inspección ocular del topónimo y la encuesta entre las gentes del lu-

gar. Sin este requisito de verificación, cualquier hipótesis o análisis toponímico se convierte en mera especulación y deja de ser científico.

2. Euskal toponimiaz

Toponimoak gure aurrekoek aspaldi jarritako leku-izenak dira eta izen horiek egun erabiltzen ditugun moduan jaso ditugu, belaunaldiz belaunaldiko transmisio katean. Eta transmisio horri oso garrantzitsu deritzot, ezen azken ehun urtean gutxienik egun erabiltzen ditugun moduan burutu direla toponimoak ziurta badezakegu (duela ehun urte baino lehenagoko testigantzak ditugu herri gehienetan), zergatik pentsatu beharko genuke aurretik ere ez dela horrela gertatu? Are gehiago jakinik azken berrogeita hamar urtean gertatu dela hizkuntzen eremuko eragileen (ikus-entzunezkoak, Internet...) hazkundera eta, hala ere, toponimoek berean (azken ehun urtekoan, esan nahi da) iraun dute.

Bestalde, toponimo horietako batzuk aspaldian dokumentaturik ere ageri zaizkigu eta hauxe, batzuetan, lagungarri suertatzen da toponimoaren esanahia ulertzeko. Hala dio Michelena maisuak (1989, 12-13) ere:

Tratándose de una disciplina histórica como la nuestra, parece inútil encarecer la importancia de las formas antiguas consignadas en documentos o inscripciones y, sin embargo, no siempre se han tenido suficientemente en cuenta en nuestros estudios y no sólo por quienes se dedican a trabajos toponímicos. Aunque su testimonio no siempre sea inapelable –hay la posibilidad de errores de transcripción o copia–, tienen frente a cualquier etimología meramente supuesta el valor de un hecho frente a una hipótesis. Es inútil hacer suposiciones ingeniosas para explicar, p.ej., Goizueta cuando un documento de la segunda mitad del siglo XII nos da la forma Goizuuieta; de la misma manera, Echarri queda perfectamente explicado por la forma atestiguada Echauerri.

Michelenak, bistan da, garrantzi handia ematen dio dokumentazioari, baina hala ere, onartzen du dokumentazioan agertzen den modua ez dela beti segurutako hartu behar, aukera dagoelako testua transkribatu edo kopiatzerakoan

akatsak egiteko. Eta nik gehituko nuke are gehiago egon daitezkeela akatsak euskararen kasuan, transkribatzaileak (notarioa, idazkaria, eskribaua...) ez bazuen euskara ezagutzen. Ohikoak dira horrelako kasuak Euskal Herriko artxiboetako dokumentuetan. Ondorengoak, esate baterako, Fernando Maioraren *Reino de Navarra. Injurias, coplas, frases* (2011) liburutik jasoak dira:

ura yreua çama duny (...) bay, eta Mari Joan here yre uazama duni¹ (AGN. N^o- 281231).

çaute apurcho bat biguel eretatecen onec beyan jonac dio² (AGN. N^o-27598).

alquirit uquinunbaçin du eçinan etorrigo onera³ (AGN. N^o-29604)

bay, bada chucendu elcar bear gudu (...) bay bada elcar xuxendu bear dugu (...) bay bada çuc edo nic oren ayer bacayzquit ercal chuçendu bear dugu (...) bay bada ercal chuçendu bear gudu cuc edonic (...) bay bada elcar jugen dubar dugu⁴ (AGN. N^o-149762)

Bereziki aipagarria azkena, dokumentu berean informazio berbera jaso eta hainbat modu ezberdinetan idatzirik ageri baita: *elcar/ercal, gudu/dugu, chucendu bear/xuxendu bear/jugen dubar*.

Ekaitz Santaziliak (2015) ere, Maioraren liburuko euskaraz idatzitako esaldiak aztertu ondoren, honek transkripzioetan «huts franko» egin dituela dio:

Arantzarik gabeko arrosarik ez baita, Maioraren liburuak eta bertan jasotako pasarteek ere badute itzalik. Liburuaren egileak ez du euskara menperatzen eta ez du hizkuntzaren historian eskarmenturik, ondorioz, traskribapenetan huts franko daude.

¹ Bere batuko ordaina, seguru asko: «hura hire ugazama dun (...) bai, eta Mari Joan ere hire ugazama dun»

² Honena aldiz: «zaudete apurtxo bat gibe(ta)rat ezen honek behiari jo nahi dio»

³ Beste honek: «ahalkerik ukanen (ukinun) bazenu (bazindu) ez zinen etorrigo hon(er)a»

⁴ Eta azkenik: «bai, bada zuzendu elkar behar dugu (...) bai, bada elkar zuzendu behar dugu (...) bai bada zuk edo nik oren (?) haiek bazaizkit elkar zuzendu behar dugu (...) bai bada elkar zuzendu behar dugu zuk edo nik (...) bai bada elkar zuzendu behar dugu»

Orduan, jakina, XXI. mendeko autoreek huts egin badezakete garai bateko eskuizkribuak transkribatzerakoan, nola ez zuten huts eginen ordukoek haiendako arrotza zatekeen hizkuntza entzun eta, ondoren, idatzi behar zutenean?

Toponimian ere, ugari dira horrelakoak, *Echaerri de Arandas* ageri da transkribaturik *Ordenanzas de la Hermandad de Gipuzkoa (1375-1463)* liburuan, esate baterako.

Era berean, ados egonik egintzak edo egitateak hipotesiak baino balio gehiago duelakoan, ez genuke ahaztu behar toponimoen egungo formak ere garaian garaiko egintza direla eta beste hainbat hipotesiren aurrean balio berbera aitortu beharko geniekeela, batez ere toponimoak nola idatzi behar ditugun erabakitzerakoan. Halaxe dio Michelenak berak ere (1989, 13-14):

Tratándose de formas atestiguadas en la lengua actual o en los textos la cuestión es menos insegura: las principales discrepancias surgen cuando se trata de restablecer la forma primitiva que explique las diversas variantes. Pero a veces hay que admitir, por necesidades teóricas, variantes no documentadas y aquí todo depende de la idea que cada uno se hace de la evolución fonética de la lengua.

Garrantzitsua iruditzen zait, bestalde, errenteriar maisuak, atal honetan jaso dudan bere lehen aipuan, toponimiari aitortzen dion izaera, diziplina historikoa, interpretazioari lotua, beraz, hein handi batean eta, hala izanik, bere gainean interpretazio ezberdinak jaso ditzakeena, toponimoaren osagaiak nabarmenak ez direnean bereziki. Horregatik, ustezko azalpen zenbait, burutsuak edo ez hainbestearainokoak, ematen dira maiz, eta horrek ez du esan nahi etimologia fikzioa egiten denik horrelakoetan, fikzioak (itxurapena edo asmaketa) berarekin baitakar errealitatean ez oinarritzea derri gorrean, eta nik ez dut uste toponimian ari den inork halako helburua izan dezakeenik.

Hala ere, nire ustean, hizkuntzalari handiak lehentxeago aipatzen nuen bere aipuaren amaieran jartzen duen adibideetako baten kasuan, berak adierazten duen ustezko azalpen burutsua («suposición ingeniosa») egiten du, ez baitut, nik behintzat, inoiz *Etxarri* toponimoa *Etxaberi* bezala dokumentaturik ikusi, ezta *-berri* osagaia duen toponimorik kontsonante ezpain-

karia galduta duela ere. Ez da gaur egun eztabaidarik bere grafiari buruz, baina kasu oso adierazgarria iruditzen zait dokumentazioaren erabateko fidagarritasunaren aurka egiteko eta, horrexegatik, luzatuko naiz zertxobait bere azalpenean.

Toponimoaren dokumentazioaren historian zehar, XII., XIII., XIV. eta XV. mendeetako zenbait dokumentutan modu ezberdinetan agertu da idatzirik: *Echarri*, *Echarrin*, *Echerri*, *Cherri*, *Eschierry* eta bitan baino ez bada ere *Echaerri*.

Etxeberri izen konposatutik eratorri zuen, orduan, Michelenak: *etxe + berri* > *etxaberri* (-e > -a konposizioan) > *etxaerri* (bokal arteko ezpainetako herskari ahostunaren galera) > *etxarri* (erdiko bokalaren erortzea).⁵ Hauxe da egun jarraitzaile gehien dituen azalpena. Hala ere, nik ez dut uste horiek direnik bere osagaiak, ezen herria bai izan zen eraikuntza berria (XIV. mendekoa), baina dorretxea, gaztelua edo dena delakoa, aurretik zegoen bere izena eta guzti⁶, Aranazko «etxarria» (... *en la tierra de Araynatz*...). Eta, gainera, zergatik Aranatz haranekoaren izenak bere osagaien bilakabidea edo degradazioa jasan zuen eta, hamasei-hogei kilometro ekialderago, Arakilen daudenak (*Etxeberri -Echaverri* 1268ko Hamarrenaren liburuan-, *Hiriberri*, *Itsasperri*), aldiz, ez?

Bestalde, ez da batere ohikoa (nik ez dut horrelakorik aurkitu) toponimian *berri* osagaiaren kontsonante ezpainkaria erortzea konposizioan: *Aizaberri* (Arizkun), *Biliberri* (Atondo, Otsobi), *Butzuberri* (Gatzaga), *Erroberri* (Beintza-Labaien), *Etxolberriko harria* (Ultzama), *Gazteluberri* (Altsasu), *Iraperri* (Almandoz), *Itsasperri* (Arakil), *Ireber/Iriber* (Beruete), *Oianberri* (Etxalar), *Otsaberri* (Eugi), *Sarobeberri* (Leitza), *Jaberri* (Irati ibaia), *Xabier*, *Erriberri*, *Auritzberri*, *Ilunberri* (Lumbier), *Hiriberri* (Aezkoa), *Hiriberri* (Arakil)...

1268ko «Hamarrenaren liburua» arakatuz ere, ez da horrelakorik ageri: *Longuida* (4-*Lumbierr*, 41-*Xavierr*, 45-*Yriverri*, 53-*Liverri*, 58-*Olaverri*), *Elorz*

⁵ Parentesi artekoak nik erantsi dizkiot. Erreteriar maisuak horrela idatzi zuen: *Echarri* (*echa + berri* > *echaerri*; *Echerry* 1360).

⁶ ... *Berasco de Echarri y su muger Belça Çuria*... («El libro rubro de Iranzu», 1197), *Echarrin* (Hamarrenaren liburua, 1268)

(150-Yriverri), Valdorba (185-Leotz Yriverri), Artozqui (273-Yriverri, Chipua e Sarrassu), Arci (283-Yriverri), La Berroça (541-Mendirivarri), Aylin (559-Echavarri), Yerri (604-Yriverri), Arguinariz (637-Yriverri), Araquil (670-Echaverri, 683-Yriverri, 705-Yssasperry), Athetz (923-Yriverri), Ymotz (929-Yriverri), Larraun (957-Lecumberri), 1154-Yriverri Loyqu.

Toponimian aditua den Patxi Salaberri euskaltzainak (2011) ere, Michelenaen proposamenarekin bat eginez, *-otz* atzizkiari buruz ari dela, ondorengo dio:

Debemos recordar, no obstante, que en la zona centro-occidental de Vasconia en los últimos siglos de la Edad Media son abundantes los topónimos que presentan grupos vocálicos que posteriormente se han reducido, si bien la lengua oficial ha mantenido en algún caso⁷ grafías (y con ellas pronunciaciones) antiguas: Echaerri, Ollaoqui, Ozaeta / Etxarri, Oloki, Ozeta, etc.

Salaberrik, orduan, *Echaerri* toponimoak *ae* > *a* murriztapena Erdi Aroaren amaieran jasan duela iradokitzen du, baina Erdi Aroko azken mendeak XIV.a eta XV.a izanik, nola daiteke XII. mendean, 1197 urtean dagoeneko («El libro rubro de Iranzu»), *Echarri* dokumentaturik agertzea?

Aipatu *Echaerri* burutzapena, *Ordenanzas de la Hermandad de Gipuzkoa* (1375-1463) liburuan ageri da, XXXIII. tituluari. Gutxienez hiru argitalpen ikusiak ditut nik aipatu tituluari dagokionez eta horietako bitan modu ezberdinean dago jasorik aztertzen ari naizen toponimoa: *Echaerri Darana*, 1457koan; *Echaerri de Arandas* (autoreak oharra eginik: «...probable error por «Echarri Aranaz»), 1463koan; eta *Echarri de Aranaz*, hirugarrenean. Hala ere, toponimo nagusi honen lehen osagaia, *Echaerri*, balizko *Echaverri* baten bilakabide moduan kontuan izatekoa iruditzen zaio bati baino gehiagori, ez ordea bigarrena, *Arandas*. Badirudi inork ez duela zalantzan jartzen bigarren haxe akatsa izan dela, baina beste kontu bat gertatzen da lehenarekin. Aipatzekoa iruditzen zait, bestalde, *Echaerri* burutzapena jaso duen dokumentuko indizean hainbat pertsonaren abizena, zeinaren bigarren osagaia *-berri* izanik kontsonante ezpainkaria erori ez den, ageri dela: *Iñigo de Echaberria*,

⁷ *Ozaeta* toponimoari buruz ari dela suposatzen dut.

Fortun Perez de Echavarri, Joan Martinez de Echevarria, Martin d'Echavarria, Iñigo Ruiz d'Echeverria, Ynego Ruiz de Echeberria, Pedro de Echeberria.

Bestela ere, *etxaberri* > *etxaerri* > *etxarri* izan bada toponimo honen bilabidea, harrigarria da nola ez den bokal murriztapen hauxe, *-ae-* > *-a-*, gertatu bokal talde bera eta *-berri* osagaia duten beste batzuen kasuan: *aizaberri* > **aizarri*; *otsaberri* > **otsarri*; *olaberri* > **olarri*; *salaberri* > **salarri*; *plazaberri* > **plazarri*; *araberri* > **ararri*; *solaberrieta* > **solarrieta*...

Alde guztietatik begiraturik ere, bitan⁸ agertu *Echaerri* (dokumentu berean gainera) eta burutzapen segurutako ematea, ez zait oso objektiboa iruditzen, gutxienik horiekin *etxe* eta *berri* direla bere osagaiak ondorioztatu nahi bada.

Askoz ere ulergarriagoa litzateke *etxe* + *(h)erri*⁹ balira bere osagaiak. Kasu honetan, bigarren osagaiak (*herri*), eremua edo lurra adierazten du toponimian eta horixe bera eginen luke oraingoan ere, Aranatz haraneko eremua deskribatu, hau da, *etxe* tokia zela adierazi. Ez dugu ahaztu behar, aipatu eremuan hemeretzi *herri* ageri zaizkigula jasorik Felonesek (1982) argitaraturiko 1268ko dokumentuan, egun sei baino ez direnean zutik eta bizirik dirautenak.

Badirudi Arturo Campionek esan zuela *Etxarri* izenaren osagaiak «*etxe*» eta «*(h)arri*» direla, eta antzina gaztelua adierazteko erabiltzen zela pentsatzen omen zuen. Ez da ahaztu behar badirela toponimo nagusi moduan *Etxarri* gehiago Euskal Herrian barna, hala nola Larraungoa eta Etxaurikoa Nafarroan, eta Zuberoako iparraldean beste bat. Amaiurko oroitarrian ere, Nafarroako erregeen alde eta Gaztelakoen aurka, bertako gotorlekuan borrokan hil zirenen omenez, horrela idatzia dator, izen arrunt moduan lexicizaturik: «*Napar askatasunaren alde Amayurko echarrian borroka egin zuten gizonai betiko argia. 1522*». Gaztelaniako «*bastida*», «*fortaleza*» edo «*baluarte*» adieraziko luke, beraz, *Etxarri* izenak. (H)Arretxe ez bezala (hau *etxea* egiteko erabilitako ekaiaz ari zaigu), *Etxarri* eraikuntzaren izaeraz ari-

⁸ Ez dut nik behintzat besterik aurkitu.

⁹ Lehen osagaiaren amaierako *-e* > *-a* bihurtu konposizioan: *etxaerri* > *etxarri* edo *etxerri*.

ko litzaiguke (etxe-harri, gotorleku, harria bezain gogor edo sendoa), zerez egina dagoen adierazi beharrean, zertarako den azalduz, bigarren osagaia izenondo moduan harturik. Eta honen egiantz toponimikorik aurkitu nahian, esan behar dut badela horrelako osagaia eta kokapena duen beste toponimo bat, *Bidarri*¹⁰, Etxarri Aranatz herriaren sorrerako dokumentuan bertan, 1312an, ageri zaiguna. Eta OEHN begiratu zergo ere, hortxe agertzen zaizkigu honen definizioak:

bidarri (V-ple, G ap. A; Lar, Añ, H) **1.** Enlosado, calzada. “Calzada” Lar y Añ. “1.º (G), calzada, suelo empedrado. 2.º (V-ple), losa, enlosado” A. * Eleak bear du etzauntza, eta etzautzarentzat bear da ondagiña. Ondagiñik ez dan lekuetan ezartzen da ondar legorra; eta ondar legorrik ez bada egiten da bidarria. “Calzada”. It Dial 46 (Ur arrizko etzalekua, Dv galtzada, Ipharris-tatzen da etzanlekhia). **2.** (V-gip ap. Etxba Eib; BeraLzM). “Hito, mojón” BeraLzM. “Piedra miliaria. Mugarrixa mugetan, bidarrixa kilometro baktotxian” Etxba Eib.

Julio Altadill historialariak ere horrela dio *Castillos medioevales de Nabarra* liburuan:

Entre las denominaciones con que se distinguía á las diferentes fortalezas, encontramos la de Bastilla o Bastida, palabra derivada del francés de aquella época, Bastide, y que según el P. Moret, significaba una casa fuerte ó torreón de campaña. De esta clase era la que existía en el propio paraje donde hoy se asienta el actual Etxarri-Aranaz. Y ya que

¹⁰ (6A) «Otro si queremos et nos place que los de la dha villa podades facer fornos cada uno en su casa para cocer nuestro pan, et todo lo que sobre dho es vos otorgamos con tal condicion que los dichos labradores de la dha villa de Echarri que den et paguen al Rey nuestro Señor, et a los subcesores por todos los tiempos del mundo cada un año por la fiesta de San Miguel tres mil e trescientos sueldos por pecha, et cien sueldos por cena, et seiscientos sueldos de sanchetes por la Iglesia de Echarri, et por todos los heredamientos que a la dha Yglesia, sacando Aldava, et **Vidarri** que solian ser de la dha Iglesia de Echarri, et toda esta suma que los pobladores que son labradores de la dha tierra de Arainaz deven dar cada un año monta quatro mil sueldos Sanchetes según parece por lur privilegio, et ultra del dho Privilegio deven sece sueldos mas los de la dha villa de Echarri por pimieta por si es a saber que los pobladores labradores de la dha villa deven tener en pie todos los heredamientos de la dha Iglesia et tener un Capellan que cante misa todos los dias del mundo por todo tiempo =» (Etxarri Aranazko udal artxiboa, *Libro de la Claveria de los Beneficiados de la Iglesia Parrochial de la Villa de Echarri Arañaz con diferentes Curiosidades*.).

ahora la citamos y en corroboracion de lo que ántes tenemos escrito en otra ocasión, acerca del modo con que se formaron varias otras poblaciones, como Biana, Huarte-Arakil, &, en torno de las fortalezas, vamos á recordar cómo nació la villa que nos ocupa, manifestación curiosa y oportuna, que dá idea de las costumbres de aquella época. Etxarri-Aranaz tomó su nombre compuesto, de Etxarri ó Etxerri, sitio donde se fundó, y Aranaz, lugar antiguo cuyos moradores pasaron á habitar en Etxarri. Don Sancho el Fuerte concedió Fuero á los vecinos de Aranaz, redujo sus pechas y concedióles algunos privilegios, reservándose para sí la iglesia llamada de Santa María de Etxerri con su heredad y pertenencias. Confirmó estos beneficios el Rey D. Teobaldo I y cedió tambien la iglesia y torre nombrada, a condicion de que no la pudieran vender ni enajenar. (1934, 36)

Eta hipotesiak hipotesi, *etxe* + *-(h)arri* izanagatik ere bere osagaiak, posible litzateke asimilazio atzerakariaren medioz zenbaitetan bokal irekia asimilaturik agertzea: *etxe(h)arri* > *etxarri* > *etxerri* > *txerri* (aferesia).

Horrela, *Cherri*, *Echerri*¹¹, *Eschierry*¹² ageri da XIV. mendeko dokumentu batean baino gehiagotan.

Toponimoek bilakabidea izan dute mendeetan zehar eta askotan erabat itxuraldaturik iritsi zaizkigu: *Otso* + *benta* > *Otxenta*, *Txuri* + *soro* > *Txui-xo*, *(H)aitz* + *gorri* + *be(he)* > *Aizkorbe*.... Orduan, jatorrizko burutzapenetik geratzen dena da toponimoa eta, horrexegatik, hortik aurrera horietako bakoitzak zer galdu edo aldatu duen haztatu behar. Eta haztatu aditza azpimarratu nahi dut, atzera berriz, ezen ziurtatzea beste kontu bat baita. Haztatzearekin, ikerketaren ondorio litzatekeen bilakabideren bat proposatzea adierazi nahi da; inola ere ez ziurtatu, ez behintzat kasu guztietan. Hala ere, proposamen guztiak baliagarri izan daitezkeelakoan nago, batzuetan zenbait aukera baztertzeko baino ez bada ere.

¹¹ NAOko 1360ko dokumentua, 14 kutzakoa, 76 zenbakia duena («Libro de las diezmas de la villa de Echerri»). Baita hurrengo oharreko autoreak 714 eta 716 dokumentuetan.

¹² Maria Teresa Ruiz San Pedro (1997). Dokumentu honetan idatzirik ageri den moduan, pentsa liteke *i(s)txi* + *herri* direla bere osagaiak, baina ez da ahaztu behar, herria eraiki eta hesitu (1312-1351) baino askoz lehenagokoa dela *Etxarri* izena, dorretxea baino ez zenekoa (1197koa gutxienik).

Bestalde, toponimo edo leku-izenek balio handia dute hizkuntzalaritzaren ikuspegitik, baina baita gizartearenetik berarenetik ere. Lekuak deskribatzen dizkigute batzuetan (*Iraigorri*), gertaerak kontatu beste batzuetan (*Joxanjelen iriyek bota zien zuluue*), edota beste mota batzuetako informazioak eman ere bai (*Inumugeta, Puttarrri*). Eta hauek guztiak, kasu askotan, antzeman ezinak gertatzen zaizkigu denboraren poderioz. Horrelaxe gertatu da azken berrogei-berrogeita hamar urteetan Etxarri Aranatzan ezaguna dugun *Txiñermuno* toponimoaren kasuan. Bi osagai argi ditu: *txiñer* (arima, izpiritu) eta *muno* (muino). Lehen osagaiaren kasuan, ezagunak dira oraindik herriko zenbait etxetan aipatu izenaren inguruko kontakizunak; eta bigarrenarenean, aldiz, ezaugarri edo gertaera geografikoa izanik, bertan ikusteko modukoa beharko litzateke, baina joan zen mendeko hirurogeiko hamarkadaren amaieran egindako partzela bilketaren garaian (concentración parcelaria), bide berrien zorua sendotzeko erabili zen muino horretako lurra, legartsua nonbait, hauxe desagerraraziz.

3. Atapuerca (Burgosko toponimo nagusia)

«Porka» izenak¹³, Sakana erdialdean, gai baten multzoa adierazten du eta gai horren zatiek nolabaiteko harremana edo lotura erakusten dute. Gaztelaniako ‘horca’, ‘sarta’, ‘ristra’ eta ‘racimo’ hitzak ordezkatzan ditu: *artaporka*, *mahatsporka*, *baratxuriporka*... Etxarri Aranatzan *izporka* ere erabiltzen da, izen eta izenondo moduan, ‘hitz andana’ eta ‘hitzontzi’ adierazten duelarik kategoria bakoitzean.

OEHN modu ezberdinetan dago jasoa, baina esanahi berarekin: *morka*, *borka* (AN-ulz, Sal, R; Lh), *porka* (G-nav, AN, B).

Eta badirudi hedapen zabalagoa izan duela burutzapen honek, betiere toponimiari erreparatzen badiogu. Ezaguna dugu guztiok, azken hamarkada hauetako arkeologia indusketak medio, Burgosko *Atapuerca* toponimoa. Toponimo honen etimologiari buruzko iritzia duela hamar urte gutxi gorabehera eman zuen Xabier Kintana euskaltzainak (*Diario de Navarra*, 2007-07-30). Jose Mari Satrustegiri entzun omen zion lehen aldiz hitz horrek euskal etimologia ukan

¹³ Euskaltzaindiaren hiztegian ‘morka’.

zezakeela. Badirudi lehen osagaien oinarritu zuela aipatu euskal etimologia Kintana jaunak, ezen bigarrena gaztelaniako lehenaren oihartzun gisa azaltzen baitu. Honela jarraitu zuen, orduko hartan: (Bere ustean, hitz horretan),

...biki edo geminatu semantiko deitu ohi denaren kasu bat genuke, hau da, esangura bereko bi hitz, euskaraz bata, gaztelaniaz bestea, elkarrekin lotuak. Hortaz, jatorriz *Atapuerta genuke, hots ate-puerta, hitz bakarrean era bereko bi fonema gerta ez zitezen, hasierakoak eraginda, bigarren /t/-a disimilatu eta /k/ bihurtuz. Horretara, *aTa-puerTa-tik Atapuerca-ra iragan bide zen, ondoren, eskualde hartan euskara galtzean, gaztelaniazko puerco/a hitz arruntarekin herri-etimologia faltsua sortu arte.

Nik ere uste dut Jose Mari Satrustegik intuizio handia erabili zuela, baina seguru asko toponimoaren osagaiak ezagunak egiten zitzaizkiolako. Lehena, *ate*, oso hedatua dago Euskal Herri osoan eta, bigarrena izan daitekeena, *portka* hitza, oso erabilia izan da duela gutxi arte Sakana osoan, gorago esaten nuen esanahiarekin. Hala ere, toponimo honen osagaiak hauek badira, kasu honetan ere gaztelaniak izan du eragin zuzena bere bilakabidean, jatorria latinekoa duten beste kasu batzuetan gertatu den moduan, bokal erdiaren diptongazioa burutuz, hau da, *o* > *ue* bihurtu du. Hala gertatu da, esate baterako, *portam* > *puerta*, *solum* > *suelo*, *forum* > *fuero*... hitzen kasuan.

Diptongazio berbera aipatzen digu Salaberrik (1997, 9) -tz(a) atzizkiaz ari dela: «egokiro azal daitekeen beste bailara izen bat euskaraz -toponimia txikia lekuko- *Berroza* (*Berrotza?*; *Berrueza* erdaraz) deitu izan dena dugu;...»

Eta erdiko bokalaren diptongazioaren teoria berrestera dator nik joan den urteko martxoaren amaieran ezagutu nuen «Historia documentada de ATAPUERCA» artikulua, Burgosko Unibertsitateko Luis Martínez García Erdi Aroko Historiako irakasleak argitaratua. Besteak beste, toponimoaren dokumentazioan arakatu eta gero, ondorengoak esaten ditu:

El primer documento escrito en el que aparece el nombre de Atapuerca es del año 936. Una tal Doña Fronilde, dona al Monasterio de Cardeña, entre otras, la villa de Orbaneja de Río Pico, donde dice; ...*per summa serra de Adtaporka usque ad ecclesie Sancti Vincenti que est super illa cueba*... El segundo en antigüedad, del año 1068,

es un privilegio otorgado por el rey Sancho II de Castilla por el que concede al obispo de Oca Don Simeón como paso previo a su traslado a Burgos en 1075, muchas iglesias y posesiones, entre otras ...*et in Ataporka duas ecclesias cum suis adjacentiis.*

1054 la batalla de Atapuerca transcrita a través de cronistas 100 años después; la Crónica Silense, la Crónica Najerense (1.140-1.160) y los Anales Compostelanos (h. 1.140), las tres crónicas coinciden en; '*Iam autem Garsias in media valle de Athaporca (Silense Athaporka) posuerat castra...*' En 1071, un individuo llamado Morelle dona al Monasterio de Cardeña unas casas '*...in Atapuerka, in villa qui dicitur Quintana, cum tota sua hereditate...*'

(...)

Sin embargo, el documento más importante está fechado en 1.138, firmado por el rey de Castilla Alfonso VII, que es el Fuero de Atapuerca, documento que se conserva en la Biblioteca de la Real Academia de Historia de Madrid. En éste sí se habla de la villa de Atapuerca (Ataporch) y de sus vecinos.

(...)

Tras indicar que los especialistas en Toponimia no se ponen de acuerdo sobre el origen y sentido de los vocablos, *Adtaporka/Adtaporta/Ataporch*. Refiriéndose a la opinión, a su juicio poco convincente, del catedrático de Historia del Derecho G. Martínez Díez: *Adtaporka*, como palabra compuesta de adta con sentido de hasta, y porca o puerca, hembra del jabalí, aunque resulta difícil precisar qué se quiere significar en concreto con esa expresión (Pueblos y Alfoces).

La interpretación más razonable del conferenciante, (con J. M^a Solana, catedrático de Historia Antigua de la Universidad de Valladolid): «Atapuerca de raíz preindoeuropeo: topónimo formado por alba/alpa/alta como piedra o fortaleza y puerka o puerta como umbral o punto de observación. Nombre aplicado en principio a la sierra, de donde lo tomaría al parecer la villa. La aparición en la documentación de los siglos XVII, XVIII y XIX del término 'Tapuerca' lo considera un hecho de menor importancia».

(...)

Los primeros asentamientos tiene (sic) un carácter militar: Burgos, Quintanapalla, Arlanzón. A la sombra de sus castillos irán surgiendo las aldeas. Concretamente en el valle de Vena, las primeras aldeas serían Atapuerca y Agés, que aparece citada en el año 944. Muchos de aquellos colonos provenían de territorios vascos o navarros, dejando nombres como Alarcia, Herramel, Urrez, Urquiza, Froncea, Galarde, Zaldueño, Ochavro, Agés, Cuzcurrita, Ibeas, Juarros, Villabáscosnes..., quién sabe si Atapuerca... Todos topónimos vascos.

Dokumentu zaharrenean mendiari egiten dio erreferentzia toponimoak eta ondorengo bietan harana eta toponimoa besterik gabe ageri dira. Ere mu zabalada adierazten du, orduan, sarrera edo ikuspegi anitz izateko modukoa. Beraz, amaitzeko, *ate* eta *porka* izanen balira toponimoaren osagaiak, ate edo sarrera multzoa adieraziko luke. Ez al du zentzurik?

4. Hasieran *ara-* osagaia duten toponimo batzuen gainean

Ukaezina da eiharak (*ihara, ihera*), hau da, erroak, gizatalde edo herri neolitiko eta brontze arokoen ekonomian izan zuen garrantzia, eta, seguru asko, ez zen beste modu batean izan gizatalde euskaldunen kasuan ere. Ekonomiak, geografiak eta inguruak orokorrean garrantzia izan behar zuen ezinbestean herrien baitan eta, hala izanik, hizkuntzan ere arrastoa utzi behar, erromatarak Euskal Herrira iritsi baino lehen. Hala dio Michelenak (1989, 11) ere:

Y el elemento extraño en la onomástica vasca no se limita a la influencia románica o latina. Nuestra relación con el mundo comenzó bastante antes de los comienzos de la influencia romana y es natural pensar que esta relación tuvo su reflejo lingüístico.

Azken mendeotan latineko mailegua, *errota* (< rotam), izan dugu erabat zabaldurik hegoaldean (*bolu*¹⁴ ere bai Bizkaia aldean), baina toponimia zaharrean erabat hedaturik dagoela bestea, *eihera* (*ihara*), iruditzen zait, hegoaldean eta iparraldean eta, nahi eta nahiez, halako garrantzia izan zuen

¹⁴ Mitxelenak (1989, 76) honela dio: «... en composición *bolin-*, *borin-*, *borun-*: *Boluet*a, *Bolunbu*ru, *Bolibar* (...) De **molina*, **molinum* ...»

asmakizunak utziko zuen arrastoa erromatarren aurreko gizataldeen eremuetan. Horrela uste dut nik eta horrela lortzen dut Sakanan eta inguruan diren hedadura handiko zenbait toponimo ulertzea.

Bestalde, eiharak edo errotak etengabe azaltzen dira Europako gainerako herrialdeetako toponimia nagusian: ‘mill’ ingelesekoan (Millford, Mill Valley, Fort Mill), ‘molino’ gaztelaniakoan (Molinaseca, La Molina), ‘moulin’ frantsesekoan eta Belgikakoan (Petit Moulin, Bretignolles-le-Moulin, Moulin du Puy, Croupet du Moulin), ‘mulino’ italieran (Mulino del Piano), ‘mühle’ alemanarenean (Neue Mühle, Layen Mühle, Glabecker Mühle)... Eta horrela izanik inguruko hizkuntzetan, zer dela eta ez da ‘errotak’ ageri osagai moduan Euskal Herriko toponimo nagusietan? Atal honetako izenburuan aipatu *Ara-*, aldiz, barra-barra ageri zaigu Euskal Herriko toponimian eta bilakabidea ez litzateke azaltzen batere zaila: *eihara*, *eihara*, *ihara* ageri da jasorik OEHn eta Mitxelenak (1989, 95, 278) ere hala jaso zuen: «...: top. *Erret Ihera Guinuelea* (Nav. 1150), <el costado del molino del rey>, O. de Apraiz, <Hom. A Urquijo>, III, 449;...»

Eta hemendik abiatuturik, /h/ kontsonantearen testigantza gorde duten aldagaiak ditugu (*igara/igera*); erromantzearen eraginez hasierako bokal itxiaren kontsonantizazioa erakusten dutenak (*yara/yera*); eta, azkenik, (hidronimo, mendi ...) konposizioan aferesia jasan dutenak ere bai (*ara-*):

- *ihara* > (*i*)*gara*/*(i)**gera* (/h/ren testigantza, asimilazioa)¹⁵
- *ihara* > *iara* > *iera* (asimilazioa) > *yera* (bokal itxiaren kontsonantizazioa)
- *ihara* > *iara* > *ara-* (aferesia konposizioan)

Horrela suertatzen da Sakana erdialdeko zenbait herritan (Etxarri, Lizarraga, Lakuntza) hasieran e- erdiko bokala eta jarraian kontsonante erorkorra daramaten hitzetan, erdiko bokala itxi eta ondoren kontsonantizatzen denean: erakutsi > *eakusi* > *iakusi* > *yakusi*, *yan* (edan), *yosi* (erosi), *yon* (egon)... Hala egin dute gaztelaniak eta italierak berak ere lehen pertsonako izenordain pertsonalaren kasuan: *ego* > *eo* > *io* (italiera) > *yo*. Bestalde, Nafarroako beste toponimo baten kasuan, *Esa* (1132. urtean dokumenta-

¹⁵ Eta agian, aferesia buruturik, *gara* ere bai. Hemendik, orduan, *Gar(a)bizu*.

turik), erromantzeak *Yesa* bihurtu zuen. Baina beste zenbait herritan (Dorreo, Unanu, Arbizu, Arruazu), aldiz, ondorengo bilakabidea izan dute: *erakutsi* > *eakusi* > *akusi*, *edan* > *ean* > *an*, *erosi* > *eosi* > *osi*... Eta azkenik, Arruazutik ekialdera Irañetaraino: *eakusi*, *ean*, *eosi*, *eon*...

Aipatu hiru moduetara (/h/ren testigantza erakutsiz, bokal itxiaren konsonantizazioa, aferesia konposizioan) ageri zaigu hainbat eta hainbat euskal toponimotan hauen osagaietako bat izan daitekeen (*e*)*ihera*/(*e*)*ihara* hauxe, jarraian ikus dezakegun moduan.

Bereziki aipagarria *Elkorriko* ondorengo toponimoa: *Igaratza*. Mikel Belaskok (2000, 204) horrela jaso eta komentatu du toponimo hau:

Lugar de paso. Del vasco igaro 'pasar' y un sufijo -tz de carácter locativo. El nombre se repite en una cima en Alsasua de 912 m., que es denominada Muñahan en alguna guía.

Baina dokumentaturik horrela jaso ditu: «*Yerazaco-arratearengaineco bizkarra. Ygueraza, Sel de (1781, AGN PS LG.31. n.6)*». Autore berak lan berean (2000, 205), Izaban, *Igardakua* toponimoa dakar horrela dokumentaturik: *Yeradacua* (1563, 1568), *Yaradacua* (1614, 1622), *Igaredacua* (1701), *Igardaqua* (1724), *Ygardacua o yzizpeta* (1828). Luis Mari Zalduek¹⁶ ere «Juan Arin Dorronsororen Enirio-Aralarko krokisa (1940)» artikuluan horrela jaso du Etxarri eta Ataun arteko mugan dagoen toponimo hauxe: «*Igaratza* (Iaratza, 1940, Arin 1; *Yeraza*, 1452; *Yaraza*, 1302, Aierbe 2005: 13), (*Igaratza*) Arraldea (...; *Yeraza* Arralde, 1452), (*Igaratza*) Elorriandiana (...; *Yeraza* Elorriandiana, 1452)».

Eta berdin autore berak¹⁷ «Juan Arin Dorronsororen <Material Toponímico> argitaragabearen 25. paper-zorroa» artikuluan: «253. *Ierazaco arratearen bizkarra* (1800); *Igerazaco arrate gaña* (1800); ...» Gaur egun *Igaratza* moduan ezagutzen dugu Goierni eta Sakana aldean aipatu toponimoa, baina *Iaratza*, *Yeraza* eta *Igueraza* jaso zuten duela zenbait mende eta honek ez luke *igaro*-ren bilakabidearen alde eginen.

¹⁶ FLV 115, 2012, 5.

¹⁷ FLV 117, 2014, 10.

Salaberrik (1997, 25) *Igaratz(a)* toponimoa aztertzen ari dela ondorengo dio:

EAEATB-n igara <errota>-rekin lotua egon zitekeela genioen, baina Oibar aldean beti errota opatzeaz landara, Igaratz mendia eta gaina zen, eihera izateko toki eskasa beraz, eta igaro, igaran-ekin lotu nahiago genuen...

Eta jarraitzen du esanez Aralarren izen bereko «portilu edo atea» dugula (Barandiaranek bildua) eta Altsasun ere ageri dela, toki bera edo besteren bat ote den ez dakiela gaineratuz. Orduan, garbi uzten du, errota mendian izateko zailtasuna izan zela bere kasuan toponimoaren jatorria azaltzeko datu erabakiorretako bat, eta ez toponimoaren osagaiak azaltzeko beste bilakabidearen okerkeria hizkuntzalaritzaren aldetik. Baina gure Igaratzen behintzat, Aralarkoan esan nahi dut, eta bere inguru hurbilean, badira errekek eta iturriak eihera izateko aukera emanen luketenak. Eta zer esan beharko genuke, orduan, Pirinioetako *La Molina* eski eremuari buruz? Oibar aldean beti 'errota' izena agertzen dela dio, Euskal Herriko toki gehienetan bezala erromatarren garaitik, baina Aragoi ibaia bera ere bertatik pasatzen da eta honek erakutsiko liguke, atal honetan esandakoa egiaztatuko balitz, *ara-* (eihera) ere erabili izan dela noizbait.

Rafael Carasatorrek (1993) *Yerabidea* toponimoa jaso zuen Irurtzunen 1595ean eta 1611n eta baita abizen moduan aipatutako lehen urtean, *Martin de Yerabidea* «vecino del lugar de Arriba». Eta jarraian beste toponimo batzuk aipatzen ditu osagai berberarekin: *Yeraondoa* (Iturmendi, 1620), *Yeraburua* (Errotz, 1571), *Yeramendiguibela* (Bakaiku, 1619), *Yyaraaga* (Ihabar, 1699), *Yarabide* (Altsasu, 1623) eta *Yerabul*¹⁸ (Etxarren, 1750, «...pegante a cequia molinar»).

Bestalde, autore berak, bere web orrian¹⁹, Burundako Urdiain herriko 1627ko dokumentuan, ondasunen zerrenda batean *Igaraguibel* toponimoa dakar, eta *Ieraguibela* eta *Iaraguibela*, aldiz, 1683ko herri bereko beste dokumentuan. NTMn Urdiainen *yeraguibel* (1699), *iraraguibel* (1704), *yaraguibel*

¹⁸ Osagaiak, seguru asko, *iera* + *buru* dira Errozko toponimoaren kasuan bezala.

¹⁹ (www.documentanavarra.blogspot.com)

(1915), *yyarabil* (1915) eta *yyaraguibel* (1915) agertzen dira. NTMn, Altsasun, *Igaratza*²⁰ dago jaso eta *Yeragibel* (1694), *Igaragay* (1893), *Igarzazpi* (1893) dokumentaturik. Carasatorrek, *Barranca Burunda* lanean, esaten du ur korronea adierazi nahi duela ordurako errota oso zabaldurik zegoelako, baina nik uste dut errota beraren aurreko adierazlea dela, bizirik geratu zena XV., XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan gure eremuko toponimian. Etxarri Aranatzen ere, *Eraga* toponimoa dago, *Zurkillo* errekaen bi aldeetan eta, seguru asko, jatorri bera izanen du: (y)era + -ga.

«El libro rubro de Iranzu» dokumentuan (1257), behin baino gehiagotan ageri da jasorik *Yenego* izena (*Yenego Sanchiç*, esate baterako 8. orrialdean; edo *Yeneguez* eta *Yenego* 14.ean) eta ez da ausardia handia esatea izen honen bilakabidearen emaitza *Eneko* izan dela.

Emilio Nietok (1997) *Aragoi* ibaiaren **Aracone* etimologia proposatu zuen eta haxe erromatarren aurreko izena zela esan ere bai; eta bertan, Europa mendebaldean ibaia edo ibai bazterra adierazteko (jatorrian ‘ur korronea’) oso zabaldurik den **ar* lehen osagaia antzeman daitekeela gaineratu zuen. *Aar* (Suitza), *Ahr* (Alemania), *Ar* eta *Arante* (Frantzia) hidronimoak gogoratu zituen eta euskarako *haran* ‘valle’ izenarekin izan dezakeela harremana aipatu zuen. Euskal Herriko toponimian, hala ere, berezirik ageri zaizkigu (*h*)*aran* eta *ara-* osagaiak daramaten toponimoak (*Arangun*²¹ toponimoa dago Arbizuko eremuan horren lekuko, eta baita *Aranatz*, *A(ra)ngorta* eta *A(ra)nbeltz* ere, besteak beste, Etxarri Aranatzen), nahiz eta Mitxelenak batera biltzen dituen biak, lehena azaldu ondoren:

(...) Es frecuente *ara-*: *Araeta* (*Areta*), *Aragor*, *Aragorri*²², *Araibar*, *Araiz*, *Araluce*, *Aramendi*, *Araondo*, *Araoz*, *Ararte*, *Arauna*, *Arazuri*. Probablemente se trata casi siempre de (*h*)*aran*, bien que su *-n-* se haya perdido entre vocales, bien se trate de una forma de composición (*h*)*ara-*, pero en algún caso puede tratarse por ejemplo de *are(a)* <*arena*>. (AV, 1989, 51, 69. art.).

²⁰ NTM IX: «Aunque la palabra viva hoy es *errota* ‘molino’, en toda Navarra se encuentran restos en la toponimia del arcáico *igara*, *eihara* ‘idem’, derivado de *igo*, *eiho* ‘moler’.»

²¹ (*H*)*aran* + *gun(e)* dira, seguru asko, bere osagaiak.

²² Gogoratu badela Parisen osagai berberak frantsesez izanen lituzkeen cabaret ezaguna, *Moulin Rouge*.

Harrigarria bada ere, ez ditu *Apellidos Vascos* liburuan *Arakil*, *Aragon*, *Araia*, *Araka*... aipatzen eta *Aralar* bera ere, soilik esateko 1025eko dokumentu batean *aralarre*, bukaeran erdiko bokala duela ageri dela. FHVn ere soilik *in Aralarre Bedaiça* (1074) eta *Arelarre* (1141) *Aralar* oronimoak bigarren osagaiaren azken bokala galdu duela azaltzeko.

Hala ere, oso interesgarria iruditzen zait Nietoren etimologia, **Aracone*, aukera ematen baitigu, *Arakil* ibaiaren kasuan bezala, lehen osagaia (*i*)*ara* izan daitekeela pentsatzeko, eta bigarrena, aldiz, *gune*: (*i*)*ara* + *gune* > *aragun*²³ (apokopea) > *aragon* (bokal itxiaren irekiera). Hemendik *Aragoi* erabiltzera, erraza da bilakabidea estandarizazioaren eskutik: *-on* > *-oi*.

Orain arte esandakotik, jatorrizkoa suposatzen dudan *eihera* izenak bilakabide bat baino gehiago izan dituela ondorioztatu beharko genuke, beste zenbait toponimoren osagaiekin gertatu den bezalaxe. Ala ez du horixe bera egin *etxe* eta *berri* osagaiez sortutakoak? *Etxeberri*, *Etxaberri*, *Etxebarri*, *Txabarri*, *Xeberri*, *Xabier*, *Jabierre*... *Etxarri*, *Etxerri* edo *Txerri* ere bai zenbaiten ustean.

4.1. Arakil

Arakil < **yaragil* < **iaragil(e)* < *ihara*²⁴ + *-gile*.

Ibai ertzean hainbeste errota (*eihera* Iparraldean, *ihara* Luzaiden) izanik, ibai errotagilea litzateke gurea. Rafael Carasatorreren *documentanavarra.blogspot.com* blogean, «Libro de fuegos de la merindad de las montañas del año 1427» (AGN²⁵ Comptos nº 3) dokumentuan jasota dagoen moduan, Burundan, Etxarri Aranatzen, Ergoienen eta Uharte Arakilen errota ugari zituzten, eta hauez gain, Lakuntzan, Irañetan, Irurtzunen, Hiriberrin, Ihabarren eta Etxarrenen bana. Errota pila, beraz, Arakil ibaiaren urak, besteak beste, profitatuz.

²³ 4.7. puntua ikusi.

²⁴ Horrela ageri da jasorik OEHn *eihera* sarreran: *ihara* (L-ain, BN; Ht VocGr, Lar DVC 246, Dv, H), *igara* (AN, L; Lar, Añ, Dv, H). Goi-nafarreran ere bai, beraz.

²⁵ Nafarroako Artxibo Nagusia.

«El libro rubro de Iranzu» dokumentuko *Yenego* izena aipatu dut lehen-txeago eta izen honek hasierako kontsonante igurzkaria galdu eta azken silabako kontsonante herskari ahostuna ahoskabe bihurtu baditu *Eneko* bihurturik, bilakabide bera jarraituz, emaitza bera emanen liguke hidronimo honek: **yaragil(e)* > *arakil*.

Bestalde, toponimoaren bigarren osagaia litzatekeen atzizki honek (-*gile*), Sakana erdialdean, apokopaturik, maiz galtzen du azken bokala:²⁶ *kisusgil/ki-suskil* (gisugile, igeltsero), *langil* (langile), *zirringil* (*zirringila* Uharte Arakilen). Eta hidronimo honen kasuan bezalaxe, lehen osagai berbera duten beste zenbait toponimoren eta hidronimo baten kasuan ere, hitzaren azken tokian doan bokal erdiaren galera suertatzen da: *Aralar*, *Fandoilar* (Ziordia) eta *Aragun*.

Zenbaitek *Arakil*, *Araceli* toponimo erromatarraren bilakabidetako hartzen du, aspaldian, erromatarren garaitik ageri delako dokumentaturik horrela, baina metatesia medio, jatorrizkoa izan daitekeen *(*i*)*aragile*-tik (> **arakile* >) **arakeli*-ra erabat ulergarria da bilakabidea. Eta ulertzekoa da erromatarrek toponimoa haien grafiara moldatu izana (**arakeli* > *araceli* -baina *aracaeli*²⁷, *aracoeli*-), askoz geroago ere beste hainbat toponimo euskaldunekin gaztelaniak egin duen moduan: *Aitzita* (Dos Hermanas, Irurtzunen), *Larraina* (La Reina, Iruñean), *Ariztibarren* (Truistibarte, Aezkoako Hiriberrin), *Arrubi* (La Rubia, euskara galdua duten zenbait herri nafarretan)... Bestalde, normala da, era berean, *Aracaeli* lehenago dokumentaturik agertzea *Arakil* edo 'Araquile' baino, orain arte behintzat ez baitago euskaldunek erromatarrak etorri baino lehen idazten zuteneko lekukorik. Eta, honekin batera, gauza ziurtako ere eman dezakegu arakildarrek izena jarritan izanen ziotela haien ibai nagusiari erromatarrak etortzerako: (*I*)*arakil(e)* agian eta erromatarrek *Aracaeli* (< **arakeli* < *Arakil(e)*) transkribatu?

Bestalde, aipatu behar da Ultzaman *Arkil* (*Arkil Ugeldia* herritarrendako) izeneko erreka dagoela eta bere goiko eremuari *Zazpiburrieta* esaten diotela (errotaren jardunerako egokia). Eta Gipuzkoan ezaguna den *Zizurkil* toponimo nagusia. Jatorrian osagai berekoak ote?

²⁶ Hortxe ditugu, era berean, *Zizurkil* herri izena Gipuzkoan eta *Arkil* ibaia Ultzaman.

²⁷ *Caesar* > *kaesar-kaiser* / *cesar*.

4.2. Aralar

Aralar < **yaralar* < **yaralarre* < *ihara* (errota) + *larre*.

Bigarren osagaiak pentze edo belardia adierazten du. («pastizal, dehesa» Mitxelenak) eta apokopaturik izanen genuke, Burundako mendebaldean dagoen Ziordiko *fandoilar* toponimoan (dokumentaturik *juandonizlarre*²⁸ ageri da 1679an eta 1731n), Arbizuko *Zopular* eta *Etxalar*²⁹ toponimoetan eta *Axular*³⁰ baserri-izenean bezala.

Mitxelenak ere (AV, 1989, 152. orr), *torre* osagaiaren azken bokalaren erorketa aipatzen du eta jarraian ondorengoa esaten du: «En el mismo documento (1025eko Olazabal monasterioko donazioa) se llama aralarre al actual Aralar».

Eta gauza bera, lan berean, *olatza*, *olatze* izenak aztertzen ari delarik (138. orr.): «Un topónimo Saueriolatze, in Aralarre, en un doc. navarro de hacia 1150.»

Errotak ugari izanen ziren garai batean (*Aitzarrateta*, *Errotatxo*...), mendikate guztian sortzen diren errekek eta errekatxoak profitatuz. Nafarroa Beherean *Eihalarre* dugu herri ezaguna eta honek osagai berberak izanen lituzke.

4.3. Araña

Araña < **araaña* < **yaraaña* < **yaragaña* < *ihara* + *-gain* + *-a*.

Araña toponimoa ere Lizarrustitik datorren ibaiaren ondoan dago. Roman Felonesek 1982. urtean argitara eman zuen artikuluan *Arthania* ageri

²⁸ BBn, Ziordiko toponimian (1993, 551), Rafael Karasatorrek beste aipamen hau egin du: «Monte de Juan doniz larre... monte y paraxe llamado Arquifiano». Eta Arkinano sarreran (85. or.): «... Juandonizlarre (hierbin de San Juan)...».

²⁹ Mitxelenak (1989, 117) *la(ha)r* edo *lar* osagaian sartu du, baina jarraian ondorengoa dio: «Es difícil en general distinguir en posición final los representantes de *la(ha)r* de los de *larre*, pues en unas zonas se ha generalizado la final *-e* en toponimia a todos los temas consonánticos, mientras que en otras parece observarse la tendencia opuesta a suprimir *-e* en muchos casos».

³⁰ Aurrekoarekin batera aipatzen du Mitxelenak.

da. Rafael Karasatorrek BBN (1993) (hemendik jaso zuen gero NTMk toponimoari buruzko informazioa) ondorengoa dio:

Los habitantes de Araña se supone que pasaron a vivir a Arbizu, por el aumento repentino de su población. (...) Se encuentra el poblado en una colina, Aldasgueñ, a la derecha de la carretera que de Lizarragabengoa va a Lizarrusti; al Este y a unos 300 metros de las ruinas de Arañitxie. En el alto se ven restos de los muros, cimetaciones y amontonamientos de piedras. Queda la base de una cruz en Artitxonekolarrie, que debió desaparecer hace unos 45 años; (...) Desde la colina donde se asentó el pueblo se vigila la entrada al valle de Elkorri; al Norte queda la ladera de Aralar, lugar de refugio ante las incursiones normales; pero cuando estas empiezan a llegar de tierras guipuzcoanas, lo lógico es que abandonarían el terreno, pues serían sorprendidos, sin escape, contra el río. Se hace difícil interpretar Araña, partiendo de 'aran'.

Mikel Belaskok (2000, 61-62) *Arain* Bidankozen eta *Arainburu* Goizuetan eta Zubietan jaso ditu eta toponimo hauen esanahia dela eta, ondorengoa dio:

Probablemente de *arain* (variante de *haran* 'valle, vaguada') aunque por tratarse de un alto no debe descartarse que la terminación sea una contracción de *gain* 'alto'.

Bigarrenarekin, berriz, ondorengoa: «*Del vasco arain (variante de haran 'valle, vaguada') y buru 'parte elevada, alto'*». Eta ondoren, herrian nola burutzen duten azaltzerakoan *Arainburu*, *Araña* eta *Araingo Gaina* aipatzen ditu.

Autore berak lan berean (2000, 64) Iraizotzeko *Arañotz* toponimoa dakar (*Araño*z dokumentaturik) eta iruzkinaren amaieran esaten du ez dela baztertu behar *arain* (valle, ciruela) osagai moduan. Eta zergatik ez (*i*)*ara* + *gain* + (*h*)*otz*, aurrekoaren bidetik?

4.4. Arbizu

Arbizu (afesia) < **yarbizu* (sinkopa) < **yarabizu* < **iarabizu* < *ihara* + *bi* + *-zu*.

Ergoieneko Leziza toponimotik Arbizura doan ugaldearen alboan, egungo autobidetik hegoaldera, errota izan zen, XVI. mendean gutxienik³¹, eta baita egun hotela bihurturik den Olatzea eremuan, ugalde edo ibai berbereko urak profitatuz. NTM laneko XII. liburuan (63. orrialdean) hala dio Arbizuko historiari eskainitako ataltxoan: «Industria gisa bi irin errota zeuden (XIX. mendearen erdialdeaz ari da), bi ola, erreka bateko urak ibiliak, soilik irailetik apirilera aritzen zirenak, eta oihal arruntak egiteko bi ehundegi». Hortik izan daiteke, mende asko lehenago ere, bi errota dauden lekua adieraztea herriaren izenak. *-zu* atzizkiak oparotasuna adierazten du, baina baita gai baten tokia ere.

Mitxelenak (AV, 1989) erabat garbi adierazi ez bazuen ere, *arbi* + *-zu* direla toponimo honen osagaiak iradoki zuen, baina niri, ukatu gabe filologo handiak esandakoa, ez zait iruditzen neguko uzta horrek herri bati izena emateko funts nahikoa duenik.

NTMko XIX. mende erdialdeko historia aipamenak ere ez du labore honi buruz txintik ere esaten. Lehentxeago aipatu dut maisu erreteriarrek ez zuela erabat garbi adierazi toponimoaren osagaiak zeintzuk diren, ezen ondorengo idatzi baitzuen zehatz-mehatz (AV, 1989): «73.- (h)arbi <nabo>: *Arbi*, *Arbiz*, *Arbiza*, *Arbizu*. O acaso se trate de un compuesto de (h)arri (v. -bi).» Ez zuen nonbait oso garbi *arbi* izan zitekeela lehen osagaia. Bestalde, lan berean, Mitxelenak, 622. osagaia (*-zu*) aztertzerakoan ez du aipatu ere egiten Arbizu eta bai beste batzuk: *Amezua* (*ametz-zu*), *Artazu* (*Artazo*), *Otazua*, *Sarasua* (*sarats-zu*), *Urquizu*, *Guelbenzu*, *Iranzo*...

4.5. Arruazu

Arruazu < **arvazu* (sinkopa) < **aravazu* (aferesia) < **yarabazu* < *ihera* + *bat* + *-zu* (edo *-batzu*).

³¹ 1533-1537ko dokumentuan ageri da. Dokumentua Etxarri Aranazko udaletxeko artxiboan dago, 2. kutzan 4.1.1. zenbakiarekin eta «Amojonamiento con Arbizu» du izenburutako. (...Ytem yendo de hay hacia el molino en el termino llamado Mainzaziurra aquel junto a la pieza de Margarita de Ansa muger de Lope de Ybiricu vecino de Arvizu:...)

Aurreko toponimo nagusiaren analogiaz sorrarazitakoa izanen genuke hauxe ere. Azkeneko osagaia, ugaritasuna adierazteko atzizkia, ez letorke bat esanahiarekin, baina bai tokia edo lekua adieraztekotan, errota bakarreko lekua. Oraindik bertan dirau azken errota izandakoa Arakil ibaitik hurbil. Hala ere, *bat* + *-zu* eta *batzu* gauza bera delakoan nago.

Bertako biztanleek eta inguruko herrietakoek *Arbazu* eta *arbazuar* hitzak erabiltzen dituzte herria eta herritarren izenak adierazteko. Posible litzateke jatorrizko *Arbazu Arvazu* idaztea hasieran eta hortik *Ar(r)uazu* idazten jarraitzea beti. Zailagoa iruditzen zait jatorrizko *Arruazu* batetik *Arbazura* iristea, bereziki azken burutzapen hauxe soilik ahozkoan erabili izan delako.

4.6. Araia

Araia < **iarai*a³² < **yararia*³³ < **iaradia*³⁴ < *ihara* + *-di* + *-a*.

Burunda-Arakil ibaiaren sorburuan, Araia ibaian, errota ugari ziren garai batean. Erróta lekua zen beraz. Jose María Jimeno Juriok argitara eman zuen «El libro rubro de Iranzu» Erdi Aroko dokumentuan, 69 zenbakia duen atalean (Barriako monasterioan egindakoan), ageri zaizkigu Araiako eta Albenizko errotrak:

En Alaua, don Lop Diez de Pharo nos dio por todo siempre el diezmo de las ruedas de Albiniz et el diezmo de las ruedas de Araya. Et d'esto tenemus carta con su seyello pendient, que es assi: Conosçuda cosa sea a todos los ommes qui esta carta uieren, que yo don Lop Diez de Pharo do el diezmo de las ruedas d'Albiniz et el diezmo de las ruedas de Haraya al conuiento de Yranço pora seculorum secula, por mi alma et por la alma de dona Urraca. Et nuyll omme del mundo, ni mi fiyo ni mi fiya, non demande pleyto ninguno sobre esta razón. Et [qui] 68 a la mi alma et / 69 a la de dona Urraca bien quiere, non faga perder al conuiento de Yranço estos diezmos d'estas ruedas, et si non todo el

³² Bokal arteko kontsonante dardarkariaren erorketa

³³ d/r txandaketa

³⁴ Bokal arteko /h/ kontsonantearen erorketa eta hasierako bokal itxiaren kontsonantizazioa

peccado sea sobre eyl, et Dios li de la su yra. Facta carta en monasterio Berria, XIX dias andados del febrero, Era Millesima CC.a LXX.a.

Bertan *Haraya* izena ageri da: *(i)haradia > *haradia > *hararia > (h) *araia* ote bere bilakabidea? Beste zenbait dokumentutan Burunda edo Arakil ibaiari Araia ere esaten zaio. Eta ia gauza bera esan daiteke Arabako ipar-mendebaldean den Aiara haraneko izenari buruz: *eihera* > **eiera* > **aiera* (ei > ai diptongo irekiera) > *aiara* (analogiaz).

4.7. Aragon

Aragon < **yaragon* < **iaragun* (apokopea) < *ihara* + *-gune*.

Hidronimo honi buruz Emilio Nietok (1997) proposatzen duen (h) *aran* osagaiarekin baino, egokiago iruditzen zait niri *ihara*-rekin lotzea, lehenak ez duelako kontsonante sudurkaria gordetzen, eta, orduan, toponimoak eihera edo errota lekua adieraziko luke eta ez «ur korrontea», egia bada ere errotak erretena («acequia») behar duela gurpila mugituko duen ura ziurtatzeko.

Gainera, lehen esan dugun moduan, Arbizuko eremuan *Arangun* toponimoa dago eta begibistakoa da kontsonante sudurkaria gorde izan duela.

Mikel Belaskok (2000), hidronimo honi buruz egindako iruzkinean esaten du maiz agertzen dela arabiar dokumentazioan: *Aragun* (911), *wadi Arangun* eta *Nahr Arangun* (924). Eta autore berak Iruritako *Araongo harria* toponimoa azaltzerakoan, zer esanahi izan dezakeen aipatzen duenean, amaieran, egun *Aragon* ahoskatzen den Gartzaingo *Araun* toponimoarekin konparatzeko esaten du, eta dokumentaturik *Araun* (1703, 1716) eta *Aragun* (1884) agertzen du. Izen arabiar hauek hidronimoaren bigarren osagaiaren aukera ahalbidetuko lukete, *Gascu(n)e* abizenak *Gascon* eman duen bezala eta *Mitxelenak* (1989, 116) *-kun*, *-ku(n)e* osagaia aztertzerakoan iradoki moduan.

José María Lacarrak «Textos navarros del Códice de Roda» lanean (1945, 38) *-gune* osagaiaren lekukotza datekeen ondorengo pasarteak dakar:

Garsea Enneconis accepit uxor (lac.) filia de (lac.) et genuit Fortunio Garseanis et Sanzio Garseanis et domna Onneca qui fuit uxor de Asnari Galindones de Aragone.

Eta pixka bat aurrerago, 40. orrialdean (1945):

*Ista domna Sanzia postea accepit uirum domno Galindo comes de
Aragone, et genuit ex eo domna Andregoto regina et domna Belasquita.*

4.8. Arga

Arga < *ar(a)ga (sinkopa) < *(y)araga < ihara + -aga.

Konposizioa burutzerakoan, sinkopa gertatuko zen eta atzizkiak tokia adierazten du. Beraz, errota lekua izanen genuke ibaiaren eremua. Belaskok (2000, 420-421) hidronimo honen iruzkin linguistikoa egiterakoan, amaieran, Pascual Madozek (1846-1850) bere hiztegian hidronimo honi buruz esaten duena azaltzen du:

A modo de anécdota indicar que este autor señala que <antiguamente se llamó Arago, y en vascuence con el artículo -a pospuesto Aragoa, de donde por corrupción quedó el nombre de Arga>.

Lehen osagaia horrela balitz, *ara-*, beste hidronimo askok izanen luke interpretazio errazagorik: *Arlas* (*ara* + *lats*; Peralta, Falces), *Arlekoa* (*ara* + *lekua*; Izu), *Arluxea* (*ara* + *luzea*; Untzue), *Arbozta* (*ara* + *butzu* + *ta*; Etxalar); *Arbutz* (*ara* + *butzu*; Irurita), *Arburu* (*ara* + *buru*; Baztan).

4.9. Arazuri

Arazuri < (y)ara + zuri < ihara + zuri.

Errota zuria izanen litzateke, beraz, bere esanahia. Mikel Belaskok (1999, 81) dio, seguru asko (*h*)aran «valle» eta *zuri* «blanco» direla bere osagaiak, baina jarraian eskaintzen duen dokumentazioan (1278, *Araçolli*, *Araçorri* 1274-1276, *Araçur*, *Araçuri*, *Arazur*, *Arazuri* 1097) behin ere ez da ageri kontsonante sudurkaria. Hala ere hiztun bakar baten ahoskerak, (*h*)aran aldera lerratuko lukeela gaineratzen du. Mitxelenak (ikusi hurrengo toponimoa), bestalde, zioen (*h*)area (arena) ere osagai moduan kontuan izan beharko litzatekeela. Harea zuria ote, garairen batean, eremu horretan?

4.10. Araotz

Araotz < (y)ara + (h)otz.

Oñatiko auzo honetan ikus daiteke eiheraren erretena edo ubidea. Mitxelenak (1989, 51) (h)aran osagaiaren barnean azertu zuen, nahiz eta bertan zalantza ere ageri:

Es frecuente *ara-*: *Araeta* (*Areta*), *Aragor*, *Aragorri*³⁵, *Araibar*, *Araiz*, *Araluce*, *Aramendi*, *Araondo*, *Araoz*, *Ararte*, *Arauna*, *Arazuri*. Probablemente se trata casi siempre de (h)aran, bien que su -n- se haya perdido entre vocales, bien se trate de una forma de composición (h)ara-, pero en algún caso puede tratarse por ejemplo de *are(a)* <arena>. *Araeta* (*Areta*) parece proceder claramente de (h)area <arena>.

Edo (h)ara konposizio modua ere izan daiteke Mitxelenak berak iradokizten duenari jarraituz.

4.11. Beste batzuk

Eta, beharbada, gauza bera esan genezake Gasteiz inguruko ondorengo toponimoei buruz: **Araka**³⁶ (< (y)ara + -ga), **Arka** (aurrekoa sinkopaturik), **Arkatxa** (< (y)ara + gaitza)...

Eta azken honi dagokionez, Gasteizko eremuan ugari dira «molino» izena daramaten toponimoak eta, horietako baten iruzkinean, honela dio Martínez de Madinak (2010):

Emplazando junto a la Ermita de San Cristobal, este molino o rueda utilizaba el Cauce de los Molinos, aguas arriba del Molino de las Trianas, recogiendo las aguas del Río de Arkatxa. Erreka-lehor.

³⁵ Ezaguna da, era berean, Parisen, *Moulin Rouge*.

³⁶ Herskari ahostuna ahoskabe bihurtua, *Erkuden* Altsasuko toponimoaren kasuan bezala: *el(e)* + *guren*.

Eta gauza bera Gasteiz ondoko Mendiolan «El Molino» toponimoaren azalpena ematerakoan: Una pieza en término de Arcachabea al río caudal que ba de Monasterioguren al Molino de Mendiola (1580).

Adierazgarria, atzera berriz, *Ar(a)*- osagaia duen hidronimo batekin eta honi erreferentzia egiten dion beste batekin topo egin izana. Elena Martínez de Madinak «... *de harri*, '*pedra*', y *gatx* '*malo*'...» heldu dela badio ere, ez ote dira *i(h)ara* eta *gaitza* izanen bere osagaiak? Eta *i(h)ara* + *gaitza* + *be(he)a* bigarrenarenak? Sinkopa baino ez gertatu izana beharko genuke. Gainera, azalpen moduan, aipatu errekarari 'Errekalehor' ere esaten zaiola ageri zaigu. Deskribapen egokia ehotzeko lanak egiteko zailtasunak (*gaitza*, ur gutxi zenbait sasoitan?) dituen errotarendako.

5. Burunda

Nafarroako mendebaldean kokatuta dago Burunda harana eta sei herrik osatzen dute, mendebaldetik ekialdera: Ziordia, Olatzagutia, Altsasu, Urdiain, Iturmendi eta Bakaiku.

Harana zeharkatzen duen ibaiak ere Burunda izena du, baina jatorria Arabako Ekialdeko Lautadan du, Araian, eta izen hauxe dauka Ziordiraino bertaraino eta Bakaikurekin muga ekialdetik egiten duen Etxarri Aranatz herritik ekialdera, aldiz, Arakil izena hartzen du.

Dokumentazio gehienez horrela, Burunda, ageri zaigu, baina zenbait kasutan **Borunda** ere ageri izan da, lehen silaban erdiko bokala daramala. Horrela dator Julio Altadillen *Geografía Histórica de Navarra* liburuan:

GARIZANO, GATIZANO, GOTIZANO

La situación de este pueblo fué en el valle de Araquil, entre las sierras de Aralar y Andía, partido judicial de Pamplona. Las mismas circunstancias que consignadas dejamos al citar á Arguindicain, motivaron la des población de este lugar. Sus pobladores en 1359 pasaron á la villa de Huarte araquil, agregados á ésta para la más eficaz defensa en las guerras contra banidos y guipuzcoanos. Hay término de este nombre, menor de un kilómetro de N. á S. al pie de la sierra

de Aralar, arca de venerandas tradiciones; se halla cruzado por la carretera á la **Borunda**.

(...)

GUZTEGUI

Lugar desaparecido en el siglo XIV, á consecuencia de las enconadas é interminables luchas que los valles de la **Borunda**, Araquil y Larraun sostuvieron contra guipuzcoanos en dicho siglo y el anterior. Se halla en igual caso que los despoblados de Anguztina, Eitzaga, Iturrin, Xarasua, Ilardia y Uragar. Consta también como villa desaparecida, en *Gacetilla de la Historia de Navarra*, por D. Arturo Campi3n (Euskarianas, V serie, pág. 303).

Modu berean ageri da Pascual Madoz-en *Diccionario Geográfico-Estadístico-Hist3rico de Espa3a y sus posesiones de ultramar* behin baino gehiagotan (hiru aldiz Gregorio <San> sarreran 592 orrialdean). Gauza bera *Panorama espa3ol. Cr3nica contempor3nea* 1845eko liburuan: **Borunda** (bi aldiz 26. orrialdean). 1819ko Nafarroako Erresumako *Cuaderno de las leyes y agravios* (73. orrialdean) liburuan ere bai.

Etxarri Aranazko udaletxeko artxiboan Aranatz lurraldean 1533 eta 1537 artean gertatutako auzia dago jaso eskuz idatzitako dokumentuan eta bertan, behin baino gehiagotan ageri da **Borunda** idatzirik. Ondorengo, aipatu dokumentuko 96binper orrialdeko adibidea daukagu:

... y esta probado que los dichos de Echarri y Ergoyena han estado y est3n en posesi3n velquasi de vender las yervas y agoas y paztos dela dicha tierra de Araynaz de toda la parte y endrezera que cahe del Rio maior que por la dicha tierra cahe hacia Estella, Go3i y Lacunza Huarte **Borunda**, y otros lugares circunbecinos tanto quanto dura Araynaz y la dicha endrezera ...

Dokumentu berean 1533ko Etxarri Aranazko batzarrean parte hartu zuten artean *Pedro Borunda* ageri da. Eta 1537ko batzarreko zerrendan, aldiz, aurreko batzarkide berbera eta baita *Joan de Borunda* ere.

Michelenak (1989, 76) honela jaso zuen lehen osagaia: «*Bolua, bolu* <molino> (Refr, y Sent., 147: *boluara* <al molino>, en composici3n *bo-*

lin-, borin-, bolun-: Bolueta, Bolumburu; Bolibar (Bolivar), Bolinaga, Borinaga; ...).» Eta autore berak, aurreraxeago (78. or.), *-da* atzikia du hizpide:

-da suf. de significación imprecisa: Cirarda, Larrinda, Legarda, Leunda (...) Para Legarda/Legarreta, cf. FLV 1 (1969), 23, n.87. Alguna vez he pensado si Legarda no será simplemente Legarreta, acentuado en la segunda sílaba, con síncopa y sonorización románica.

Ildo beretik joaz, Legarda Legarretatik eratorria bada, zergatik ez genuke pentsatu behar Borunda Boruneta-tik etorri dela?

Bolun- + *-eta* → *Borun* (l/r txandaketa, *bolin-/borin-* bezala) + *-eta* → **Boruneta*.

**Boruneta* → *Borunta* (sinkopa).

Borunta* → *Borunda*** (kontsonante herskari hortzetakoaren ozentzea).

Hortik egungo Burundara ez litzateke batere harrigarria izanen bilakabidea. Errota eremua adieraziko luke, orduan, toponimoak.

Eta Burundako toponimia arakatzuz, behin baino ez bada ere, Iturmendin agertzen da hasierako osagaia duen toponimoa, *Bolinsoro* (NTM X, 62) 1893 eta 1990 urteetan dokumentatua: «*Bolin* ‘molino’ es término que debió ser corriente en lengua vasca, a juzgar por su presencia en toponimia (cf. en Vizcaya *Bolibar*, documentado *Molinibar*, *Bolinaga*). Hoy en día ha desaparecido de la lengua viva sustituido por el también latinismo *errota*. En Navarra no conocemos otra aparición del término que ésta».

Ugari da, bestela ere, mendebaldean baliatzen den lexikoa Burunda haranean eta ezaguna dugu, era berean, Burundako hizkeraren eta Mendebaldekoaren arteko hizkuntza ezaugarri kidetasuna. Toponimo hau eta *Burunda* bera ere, orduan, horietako beste bi izanen genituzke.

6. *Sare, Saroi, Sarobe/Sarabe* toponimo eta toponimo osagaiak

Hasteko, argitu beharko genuke euskal toponimian erabili diren hiru izen hauek gauza bera adierazten ote duten funtsean.

Lehena, **sare**, hiztegiak ematen dion esanahitik kanpo oso erabilia da Sakanako toponimian, esate baterako. Urbasa mendigainean eta Etxarri Aranazko eta Ergoienako eremuetan ezagunak ditugu *Arbizuko sareak*, *Erbisare*, *Biondasare*, *Ansareta*, *Itxere* (idi + sare)³⁷... Horietan guztietan, aipatu izenak duen esanahia ganadua biltzeko eta gaua pasatzeko tokiarena da. Gaztelaniako 'redil' adieraziko luke, beraz.

Gainerako izenak, izen konposatuak ditugu eta ia Nafarroa osoan eta Gipuzkoan erabiltzen dira. OEHN era ezberdinetan agertzen zaizkigu: *saroi*, *saroe*, *saro*, *sario*, *sare*, *sari*, *sagoi*, *saboi*, *saure*, *sauri*, *sao*, *zaro*, *xauri*, *isario*. Etimologia ere ematen digu: «De *sare* 'red' + *o(h)e* 'cama'.» Eta esanahiari dagokionez, gaztelaniaz honelaxe definitzen du: «Sel, prado o terreno cercado, majada; prado, pastizal. Corral, con su choza para el ganado.»

Luis Mari Zalduak (2015) ere ez du inolako zalantzarik atal honen izenburuko bigarren izenaren osagaiei dagokienez:

Elkartua (mugatzailea [*sare*] + mugakizuna [*ohe*]), bi izenez osatua, den aldetik zehaztasun handiko terminoa dugu saroi. Zati garrantzitsuena, izen sintagamaren elementu nagusia (mugakizuna) *ohe* da eta mugakizuna bereizten duen osagaia, izen sintagamaren elementu nagusia mugatzen duena (mugatzailea), berriz, *sare*. Biak ala biak euskalki guztietan aspaldidanik azaltzen dira.

Eta hau guztia azpimarratuz, aurrerago, ondorengo dio: «Sare eta ohe euskalki eta garai guztietan azaltzen dira (cfr. Ol[h]a) eta, alde horretatik ez dago arazorik euskalkiak sortu aurrekoak izateko...» Baina, zer gertatzen da *sare*, beste osagairik gabe, eta beste aldetik *ohe* beharrean *ohatze/goatze/quatze* erabiltzen duten hizkeretako eremuetan?

Azkena, *sarobe/sarabe*, OEHN ere modu ezberdinetan ageri zaigu: *sarobe*, *sarobi*, *sarabe*. Eta esanahiari dagokionez, berriz, bat baino gehiago ematen du:

«...sel, terreno o prado cercado en el monte»; «sel, es un monte de árboles en círculo perfecto, con su mojón en el centro»; «*Sarabe*,

³⁷ *Idi + sare > itsare (idi > it- konposizioan) > itxare (palatalizazioa) > itxere (asimilazio aurrerakaria).*

redil, lugar en que se recoge por la noche el ganado lanar»; «1.º corral con su choza para el ganado; [...] 5.º *sel*, terreno particular rodeado de monte comunal»; «el contorno de la choza del pastor».

Mitxelenak ere ondorengo moduan jaso zituen *Apellidos Vascos* liburuan:

539.- *sarobe*, *saroi* <*majada*> <*sel*> <*granja*>: *Sarobe* (*Aguirre-sarobe*, *Amitasorobe*), *Saroe*, *Saroihandy*. Parece un derivado de *sare* <*red*>, cf. cast. *redil* y *majada* (de *macula* <*malla*>). En Roncesvalles, 1284, *Larrandorenen bi sarohé*, *Arun Urriztoyen bi sarohé* <dos seles en L., en A.U.>. La variante *sario* está muy extendida en la Navarra alta.

Luis Mari Zalduak (2015) esaten digu ez dela *saroi* Euskal Herriko sartaldean agertzen: «Saroi-ren sartaldeko hutsunearen aurrean bi hipotesi jar daitezke mahai gainean».

Eta aurreraxeago: «Mendebaldean saroi zergatik ez den kausitzen azaltzeko beste bideabiak garaikideak direla iriztea da, ...»

J. Ortega Valcàrcelek (1987, 85) Cantabriakoak horrela definitu zituen:

...espacios dentro de las brañas, acomodados al descanso y refugio del ganado. Espacios privilegiados por sus condiciones: resguardados, con agua disponible, con arbolado para la protección, refugio y atemperamiento de los animales y con arbolado de apoyo para la alimentación de emergencia en los períodos de rigor invernal.

Eta Gipuzkoakoendako ere baliagarri dela definizioa esaten du Jose Ramón Díaz de Duranak (1995) eta euskaraz ondorengo izenak dituela garaiko Gipuzkoako dokumentazioan dio: *sarobe*, *saroe*, *saroi* edo *korta*.

Hau guztia ikusirik, badirudi esan daitekeela hiru izenek gauza bera ez bada ere, antzekoa bai bederen adierazten dutela, hau da, ganaduak gaua pasatzeko tokiari egiten diotela erreferentzia.

Hala ere, zehaztasunetan sartuz gero, izen horien osagaiak kontuan harturik, aipatu hiru izenei ezberdintasunen bat badariela esan dezakegu. Lehen-lehenik, *sare* izenak osagai bakarra du eta beste biek bina osagai. Orain, azken hauen kasuan zein izan daitekeen bigarren osagaia haztatu behar.

Lehentxeago aipatu dudan Díaz de Duranak esaten du 1483ko oñatiar baten arabera saroiak edo sarobeak asko zirela Oñatiko konderrian eta Gipuzkoan, eta bi motatakoak gainera: «...seles de ynbierno e seles de verano, ...» Eta autore berak diosku 1514ko Oiartzungo testu batean soilik lau zirela handienak, negukoak, eskualde osoan, eta *vehierdisarobeac* (que quiere decir seles de vacas paridas) esaten zitzaizela euskaraz. Handiagoak ziren negukoak udakoak baino. Udakoan tamaina bikoitza zeukaten negukoek Segurako hiriaren eta Oñatiko jaunaren arteko auzia jasotzen duen 1433ko dokumentuaren arabera: «... quatorze seles de berano de cada seys gorabiles ... e los tres seles para en cumplimiento de los dies e siete son de ynbierno de cada dose gorabiles...» Eta erabat logikoa ematen du horrela izatea, negukoak haranean izanik aukera gehiago (eremu zelaitsuagoa, ura, babes, iraunkortasuna...) izanen zuelako zabalera gehiago hartzen, eta baita bertan denbora gehiago egoteko urtearen bueltan.

OEHN, eta Zalduak ere bai, argi izan dute *saroi* izenaren etimologia eta, beraz, osagaiak horrela azaldu dituzte: *sare* + *o(h)e*. Mitxelenak *Apellidos Vascos* laneko aipamenean ematen dizkigun azken bi toponimoetan oinarriturik, seguru asko. Bilgunea eta lo egiteko eremua. Eta kasu honetan ez litzateke, ez esanahiaren aldetik, ez osagaienetik ezberdintasunik izanen *sarobe* izenarekin, ezaguna baita zenbait eremutan³⁸ *ohe* > *obe* bilakabidea gertatzen dela. Baina, hizkuntza-eremu berberak dira *obe* eta *sarabe/sarobe* izenak erabiltzen dituztenak? Ez dirudi hala denik. Hala ere, beste zenbait toponimoren kasuan gertatzen da honen osagaia baten eta erabilera arruntako hitzaren halako kidetasun eza: *atze* (hizkera arrunta), *Ezkibel* (haitz + gibel); *lazka* (nazka, hizkera arrunta), *iguindduik* (iguin eginik, esamolde berezia).

Niri, hala ere, ikusirik *sare* edo korta mota ezberdinak (kokapena eta tamaina, bereziki) direla Euskal Herrian, izenak ere ezberdintasun horien arabera izan daitezkeela iruditzen zait. Eta horrela, udako sareak goietan kokatuak izanen lirateke; eta, negukoak, behean: *sare* + *goi* > *saroi*; *sare* + *be(he)* > *sarabe/sarobe*. *Behe* osagaiarekin bereziki, asko dira euskal toponimoak: *Olabe*, *Aldabe*, *Etxabe*, *Larrabe*...

³⁸ Horrela datorkigu OEHN: *obe* (V-gip, AN; Aq 758 (R))

Udakoak, *saroiak*, goietan beraz, asko dira Euskal Herri osoan (*Saroitxo*, *Perusaroi* eta *Sagarminsaroi* Olatzagutiako toponimian, *Saroi* Ziordikoan) eta negukoak, behealdean orduan, ere bai. Azken hauen lekuko Urdiaingo *Sarabe* (beste zazpi mikrotponimo, honengandik eratorriak inguruan dituela Urdiainen bertan eta *Sarabeko hesiondo* Iturmendin), Dorraoko *Lexiza* eremuaren barnean, ibaitik gertu, *Veiemarisarobea* ere ageri zaigu Etxarri Aranzako udal artxiboko 1699ko mugarritzeetan) eta Oiartzungo *Olaiçko ogi-sarobea*.

Bestalde, *goi* izenondo moduan, hau da, bigarren osagai bezala, agertzen direneko adibide ugari ematen dizkigu OEHK, hauetan bereizirik ageri bada ere kasu guztietan:

... Mendi goi batzuek. Camp EE 1882a, 34. Zeru goi urdiñaren anditasun ta apainduriak. Ag G 11. Ots goi meagodun [ezkilak] dirala. A Ardi45. Donoki goian. Enb 142. Gaztain goiaren adar goietan. Or Eus 79. Zugatzik batere ez, toki goiegiaik baitira. Or QA 50. Alertzeak toki goiak ditu nai. Munita 72. ...

Eta Etxarri Aranatzan *ganboiko* (ganbara + goiko, aipatu osagaia eskuin aldean) izena erabiltzen da «ganbara» adierazteko, hau da, etxeko teilatu azpian dagoen solairua.³⁹ Urdiainen eta Bakaikun, aldiz, *goikoganbara* erabiltzen dute.

Eta amaitzeko, ez nuke aipatu gabe utzi nahi Ingalaterrako hegoaldeko Salisbury hiriaren iparraldean, bi kilometro eskasera dagoen *Old Sarum* aztarnategi arkeologikoa, non duela 5000 urteko aztarnak baitira. Ingalaterran argitaraturiko «*Salisbury. A History & Celebration*» liburuan, Don Crosek hala dio:

When the Romans invaded southern England they captured the hilltop settlement quickly, and soon discovered the advantages of the site for a garrison signal station and communications center, which they called Sorbiodunum.

³⁹ Duela berrogeita hamar urte, etxe gehienek egitura bera zuten Etxarrin: beheko solairua (ezkarratza, sukaldea eta estrabia), ganbara edo erdiko solairua (ganbara-zelaia, gelak), ganbaragoikoa edo goiko solairua (bertan belarra bereziki gordetzen zen eta *pastardatik* estrabira botatzen zen belarra).

Mary Paiseyk, ni bertara bisitan joan eta ostatu emateaz gain gida lanak eskaini zizkidan sarumite prestuak, aipatu «sarea» bisitatzen ari ginela esan zidan zenbaitek erromatarrek jarritako izenetik eratoritzen duela *Sarum* izena. *Sorbiodunum* > *Sor(biodun)um*, hipersinkopa buruturik, eta ondoren *sorum* > *sarum* transkribaketa okerra noizbait egin izanaren emaitza dela. Niri neuri, ez dit azalpen horrek asebetetzen, pentsatu nahi dudalako erromatarren aurretik ere, izanen zuela izena jarririk halako toki estrategikoan zegoen bizilekuak, eta bereziki aipagarria iruditzen zait bere izena, *Sarum*, gure «sare» izenaren antza handikoa. Aztarnategi zirkularra dugu hauxe (*henge* Ingalaterran), gure sareen (saroi, sarobe, sarabe) modukoa eta egungo Salisbury (*Sarisberie* normandoen garaian)⁴⁰ hiriari New Sarum ere esaten omen zaio eta hiritarrei *sarumite*. Kasualitatea ote izenaren antzekotasuna?

I. irudia: *Old Sarum* (Salisbury, England) Ineternetetik hartutako irudia



⁴⁰ Rutherford (2015, 7).

Bibliografia

ALTADILL, J., 1934, *Castillos medioevales de Navarra, Tomo I*, Eukaltzaleak, Donostia.

———, 1917, *Geografía Histórica de Navarra*, Pamplona.

(ANONIMO), 1829, *Cuaderno de las leyes y agravios reparados*, Pamplona.

———, 1845, *Panorama español. Crónica contemporánea*, Tomo III. Madrid.

BARRENA OSORO, E., 1982, *Ordenanzas de la Hermandad de Guipúzcoa (1375-1463)*, Eusko Ikaskuntza.

BELASKO, M., 2000, *Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra*.

CARASATORRE VIDAURRE, R., 1990, *Barranca-Burunda*. (BB)

———, 1427, «Libro de fuegos de la merindad de las montañas», *documentanavarra.blogspot.com*

CROS, Don, 2012, *Salisbury. A History & Celebration*. The Francis Frith Collection.

DÍAZ DE DURANA ORTIZ DE URBINA, J.R., *De los Bandos a la Provincia: Transformaciones económicas, sociales y políticas en la Guipúzcoa de los siglos XIV a XVI*, 1995, EHU-Eusko Jaurlaritza.

ERDOZIA MAULEON, J.L., 2001, «Etxarri Aranazko leku-izenak», *FLV* 88.

———, 2002, «Bakaikuko leku-izenak», *FLV* 91.

ETXARRI ARANAZKO UDAL ARTXIBOA, 1537, «*Confirmacion de la sentencia dictada por el Doctor Goñi en autos sobre amojonamiento en la villa de Arbizu*».

———, 1699, «*Autos de amojonamiento de los Montes de Arizalco, Bargas, Berain, y Sel de Uzuar*».

———, (urte askotakoa), *Libro de la Claveria de los Beneficiados de la Iglesia Parrochial de la Villa de Echarri Arañaz con diferentes Curiosidades*, 419-1.

EUSKALTZAINDIA, 2016. *Euskaltzaindiaren hiztegia I-Z*, Euskaltzaindia, Andoain.

FELOSEN MORRAS, R., 1982, «Contribución al estudio de la iglesia navarra del siglo XIII: el libro del rediezmo de 1268», *Príncipe de Viana* 166-167, Pamplona, Príncipe de Viana.

- GALE, P., 2007, «Toponimia ikerketak», *FLV* 104
- JIMENO JURÍO, J. M., 1970, «El libro rubro de Iranzu», *Príncipe de Viana* 120-121.
- JIMENO JURÍO, J. M. et alii, 1993, *NTM XII*, Nafarroako Gobernua.
- , 1993, *NTM X*, Nafarroako Gobernua.
- KNÖR BORRÁS, H. eta MARTINEZ DE MADINA, E., 2008, *Gasteizko Toponimia I*, Euskaltzaindia.
- , 2009, *Gasteizko Toponimia II*, Euskaltzaindia.
- LACARRA DE MIGUEL, J. M., 1945, «Textos navarros del Códice de Roda», *Estudios de Edad Media de la Corona de Aragón*, 1», 193-284.
- MADOZ, P., 1846-1850, *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de ultramar*.
- MAIORA, F., 2011, *Reino de Navarra. Injurias, coplas, frases*.
- MARTÍNEZ GARCÍA, L., «Historia documentada de ATAPUERCA», <http://www.cyl.com/atapuerca/indhistro.htm>.
- MARTÍNEZ DE MADINA SALAZAR, E., 2010, *Gasteizko Toponimia III*, Euskaltzaindia.
- , 2013, *Gasteizko Toponimia IV*, Euskaltzaindia.
- MICHELENA, L., 1989, *Apellidos Vascos*, Donostia. (AV)
- , 1990, «Fonética histórica vasca», *ASJU IV*.
- , *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia. (OEH)
- NAO (NAFARROAKO ARTXIBO OROKORRA), 1360, XIV. kutxa, 76.
- NIETO BALLESTER, E. & STRIANO CORROCHANO, A., 1997, *Breve diccionario de topónimos españoles*, Madrid, Alianza Editorial.
- ORTEGA VALCARCEL, J., *La Cantabria rural: sobre la montaña*, 1987, Santander.
- ROMÁN DEL CERRO, J. L., 1998, «La toponimia prehistórica de los alpes. Una aproximación a la reconstrucción de la lengua prehistórica de Europa», *ELUA*, Universidad de Alicante.
- RUIZ SAN PEDRO, M. T., 1997, *Fuentes documentales medievales del país vasco*, Archivo General de Navarra, II., Docs. 712-713.

RUTHERFURD, E., 2015, *Sarum (La novela de Inglaterra)*, Barcelona.

SALABERRI ZARATIEGI, P., 1997, «Euskal toponimiaz mintzo (Nafarroakoaz bereziki)», *FLV* 74.

———, 1998, «Arabako mugako nafar hizkeren inguruan», *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*, UEU, Bilbo.

———, 1989, «Nafarroan erabiltzen diren zenbait toki-izenez», *FLV* 53.

———, 1996, «Iruñea: toponimia eta hizkuntza», in *Iruña eta euskara*, Iruñea.

———, 2002, «Acerca del euskera de Pamplona y sus alrededores», in A. Garcia-Sanz (arg.) *La comarca de Pamplona. Territorio, economía, sociedad e historia*. Iruñea.

———, 2011, «De toponimia vasco-pirenaica: sobre el sufijo -otz, -oz(e)», *Nouvelle revue d'onomastique* 53.

SANTAZILIA, E., 2015, «Garai arkaikoko euskara nafarraren lekukotasun berriak: gehiketak eta zuzenketak F. Maioraren liburuari», *FLV* 119.

ZALDUA ETXABE, L. M., 2012, «Juan Arin Dorronsororen Enirio-Aralarko krokisa (1940)» *FLV* 115.

———, 2014, «Juan Arin Dorronsororen <Material Toponímico> argitaragabearen 25. paper-zorroa», *FLV* 117.

———, 2015, «*Saroi* entitate geografikoaren banaketa, esanahia eta etorkia toponimiaren argitan», *FLV* 119.